

Mikel Irizar

Haratago



goera oso irekia dago martxoko 9. honetan. Zenbaitek egintzat jotzen duen arren PSE-PP ituna, nik ez nuke hazienda jokatu. Izan daiteke Patxi lehendakari, nola ez, baina zaila du Ajuria Eneara daraman bidea, eta oraindik hilabete falta da gutxienez. Gauza asko gerta daiteke tartean.

PATXI BAI. Matematikak lehendakaritza eman dio, eta puxtarri horrek doble balio du. Zapatero ahul dago Galizia galdu ondoren eta garaipen bat behar du. Patxi-rengan agindu erraiek agintzen dute neuronon gaintetik, eta herra dio Ibarretxeri: gorputzak eskatzen dio haren tokia hartzea. Ibarretxek bereganatu ditu abertzale mordo baten botoak baina ez da gai gehiengorik biltzeko; aldiz Patxi nahikoa du aurkeztea gehiengoa lortzeko. Edo?

PATXI EZ. Popularren morroi da, lehendakari agertu delako izan baino lehen. Gobernuan sartzen baditu, besarkada itogarria espero lezake, eta sartuko ez balitu... ze sendotasun izango du 25 eserlekurekin? Krisiaren gogorrena etortzeko dago eta Patxi ez du inoiz aurrekontu bat kudeatu, ez du konfiantzarik ematen. Ezingo du zirt-zart gobernu akordioa lotu, eta Legebiltzarra osatu bitartean indar faktiko guztiak presiotan izango ditu, bakoitza bere aldera. Nahikoa izan daiteke hori amore eman eta lehendakaritzari uko egiteko.

IBARRETXE EZ. Hau da gauzarik argiena oraintxe, Ibarretxe ez dela berriro lehendakari izango. Azkenean gertatuko balitz ere EAJ eta PSEren arteko konponketaren bat, prezioa izango da ziur Ibarretxeren burua. Patxi, berea zurtzeko behar du gutxienez Ibarretxe ez izatea lehendakari, "frentismoan erori gabe eragin ahal izan dugun aldaketa".

ONA ALA TXARRA?

Sanoa litzateke 30 urte gobernuan daramanak agintea galtzea. Ustela da balizko



DANI BLANCO

ordezkariak arerio bat jokoz kanpo utzi izana ordezkaritza lortzeko. Gobernu meheagoa egingo omen du Patxi, zorionez. Zoritxarrez izango da elebakarragoa eta errebantxa soinu letorke, popularrek akuilatuta. Aldundien indarrak orekatu lezake gobernuaren joera hori, agian horretan datza transbertsalitate posible bakarra. Edozein kasutan, gobernu osatu eta biharamunean berdin argituko du egunak, egon ziur.

HARATAGO. Irakurketa begiluzeago bat komeni da, orde. Hemen bada tribu bat, hizkuntza baten inguruan eraikia mende luzetako bidean, biziraupenaren bila. Desager daiteke tribu gisa, eta urtu hiritar komunitate batean. Galera handia litzateke hori bere kideontzat, apenas mundaentzat.

Hain zuzen, euskaradunon tribuaren biziraupena guretzat bakarrik delako arazo, inteligentzia handia behar dugu ingurukoak gure alde jartzeko edo, gutxienez, kontra ez daitezten jarri. Genero berdintasunaren izenean, edo sexu hautuarenean, gizarteak onartzen ditu diskriminaziozko jokabideak, hain zuzen berdintasunera bidean egiten direlako.

Aldiz, hizkuntza normalizazioa arazo bihurtzen ari da.

Batzuk horretan interesa dutelako, seguru, baina baita besteok ez dugulako behar bezainbeste asmatu. Bi faktoreen ondorioz bizi du euskarak gizartearen aspaldiko girorik eskasena.

Datorrena datorrela, orain artekoaren ezberdina izango da. Hona proposamena: baliatu dezagun egoera ezberdin hori hausnartzeko. Pentsa dezagun euskaradunok nola izan gaitezkeen behar bezain temoso gure artekoa trinkotu eta atzera pausurik gabe aritzeko, eta aldi berean behar bezain atsegin ingurukoaren konplizitatea lortzeko oinarritzko asmo partekatuen alde.

Lortu izan da orain baino lehen, lortu dezakegu berriro ere. ■

Datorrena datorrela, orain artekoaren ezberdina izango da: baliatu dezagun egoera ezberdin hori hausnartzeko. Pentsa dezagun euskaradunok nola izan gaitezkeen behar bezain temoso gure artekoa trinkotu eta atzera pausurik gabe aritzeko